

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

“És rodó i dura molt”



Ezkerrean: gaur egungo Chupa Chupsek Salvador Dalí diseinatutako logoa daramate oraindik. Goian haur bat Chupa Chupsa jaten 60ko hamarkadan.

BARTZELONA, 1958. Enric Bernat (1923-2003) gozogileari ideia bitxia bururatu zitzaion: makil batetik hel zitekeen karamelua egitea. Bernatek ederki zekien gozoki kontsumitzaile ugariena haurrak zirela, eta karamelua eskuarekin ahotik ateratzeko ohitura zutela, gozokia pixkanaka nola kontsumitzen zen ikusteko.

Gozogintzarako zaletasuna familiarik zetorkion Enric gazteari. Josep Bernat aitona Espainiako Estatuko lehen gozoki fabrika zabaldu zuen. XIX. mende erdialdean denda zabaldu zuen Bartzelonan eta, sei seme-alabak lanean ipini zituenean, fabrika txikia antolatu zuen. Espainiako Gerra Zibilean fabrika suntsitu zieten, baina karameluak egiteko artea ondorengo belaunaldietara iritsi zen. Horrenbestez, Enric Bernatek hainbat gozogilarekin ikasi zuen ofizioa eta 26 urte zituela, Nuria Serra andregaiarekin batera –hura ere Bartzelonako gozogile baten alaba–, Productos Bernat enpresa zabaldu zuen. Lau urte geroago krisian zegoen Granja Asturias enpresan parte hartzen hasi zen. Bernaten eskutik enpresak berehala egin zuen gora, baina 1958an makiladun gozokiaren ideia aurkeztu zienean, bazkideek biz-


kar eman zioten eta bakarrik utzi zuten. Hala ere, gozogileak dena ondo lotu zuen: produktuaren errentagarritasuna bermatzeko, bere asmakizunarekin lehiatu zitezkeen patente guztiak eskuratu zituen. Eta urte berean lehen Chupsak ekoizten hasi ziren. Aurreko “Chupa” 1961ean erantsi zioten izenari.

Produktu berriak 1967an egin zuen eztanda. Batetik, Bernatek dirutza ordaindu zion Salvador Dalí artistari gaur egun hain ezaguna den logoa diseinatzeko. Logotipo hori-gorria aurkezteko, lehen publicitate kanpaina prestatu zuten “*És rodó y dura molt*” lelopean (biribila da eta luze irauten du). Bestetik, egurrezko makilatxoak plastikozko bihurtu zen. Urte berean karameluak nazioarteko jautzia egin zuen eta Kataluniatik kanpoko lehen fabrika zabaldu zuten Baionan: Sociéte Bernat et Cie. Ondoren, New Yorkekoa ireki zuten, eta 1977an Japonian sartu ziren indartsu.

Egun, hamabi milioi Chupa Chups ekoizten dira egunean, hots, 17.000 tona gozoki eta makilatxo urtean. Beraz, lehen kanpaina haren leloa ezin aproposagoa zen: Bernatek ideia biribila izan zuen eta luze irauten ari da. 50 urte bete berrikan osasun betean dago, behintzat. ■

ARRASTOAK

1908AN, duela 100 urte beraz, Willendorf (Austria) inguruko aztarnategi paleolitiko batean argazkian ageri den estatua txikia topatu zuen Josef Szombathy-k. Kareharrizko venus ezagunak hamaika zentimetro baino ez du neurtzen eta emakumezko bat irudikatzen du. Harrezkero, asko espekulatu da egileek adierazi nahi zutenaz: emankortasunaren jainkosa, ama-lurra, status altuko emakumea... Baina oraindik ez dakigu zer intentziorekin egin zuten. Datu teknikoak baino ez dauzkagu: 25.000 urte inguru ditu eta pieza egiteko erabili zuten kareharria ez dago inguru horietan; horrek areagotu egiten du vensusaren jatorriaren misterioa.



Willendorffeko venusa Austrian topatu zutenetik mende oso bat pasa da, baina adituek oraindik ez dakite emakumezko irudi honek zer adierazten duen.